

dFERIA 2016KO KARTEL LEHIAKETA

Oinarriak

- 1.- Partikularrek zein enpresek har dezakete parte.
 - 2.- Nahi adina zirriborro aurkeztu ahal izango dira. Lanek argitaratu gabeak eta originalak izan beharko dute, edozein modalitate artistikotan eginak, argazkiak, marrazkiak eta abar.
 - 3.- Irudi irabazleari **1.000 €** (zergak barne) emango zaizkio.
 - 4.- Zirriborroak **euskarri informatikoan (JPG formatuan, 72 ppp bereizmenarekin eta 62 x 88 cm proportzioarekin)** aurkeztuko dira.
 - 5.- Zirriborroak aurkezteko azken eguna: **2015eko irailaren 18a, 14:00etan.**
 - 6.- *“Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideetako” 1.2. atalaren arabera, erabilitako irudiek generoen ordezkaritza orekaturako joera izan beharko dute, rol eta estereotipo tradizionalak bultzatu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu aukeraketari lotutako diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.*
 - 7.- Hurrengo edizioko kartelaren gaia **“Elkarrizketak”** da, elkartrukearen sormen ahalmenaren harira, dFERIA proiektu espezifiko gisa ulertuz. Hala, zuzenean lotzen zaio DSS2015EUren programa ofizialari, eta zehazki, Elkarrizketak ildoari. Europako Kultur Hiriburutza 2016 hiriko gainontzeko agenda kultural ofizialarekin lotzeko diseinatuta dago ildo hori.
 - 8.- Elebiduna (euskara /gaztelania).
 - 9.- Proposamenak dFERIAko webgunearen bitartez bidaliko dira: www.dferia.com.
- Kartel irabazlea 2015eko udazkenean** emango da ezagutzera.

Egilearekin adostu ondoren, aukeratu ez dituzten zirriborroak Donostia Kulturaren beste programazio edo ekitaldiren baterako erabili ahal izango dira.

10.- Karteletan honako hau idatzi beharko da:

dFERIA 2016
“Elkarrizketak/Conversaciones”
Martxo 6-10 Marzot(*)
Donostia/San Sebastián

*(Donostia Kulturaren, Udalaren eta Donostia 2016ren -Elkarrizketak- logoak eduki beharko ditu**)*

11.- Donostia Kulturak egokia iruditzen zaion erabilera emango dio aukeratutako irudiari, eta berari lotuta dagoen ekitaldiak nahi duen formatu eta euskarritan erreproduzitu eta erabili ahal izango du.

20
-10-
20
1
3n
20
10

(*) Datak alda daitezke.

(**) Kasu guztietan kontuan izan behar da, aipaturiko inskripzioez gain, kartelak ekitaldiaren beste hainbat babesleren logotipoak eraman ditzakeela (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, INAEM eta COFAE).

donostiakultura.com

dFERIA
Erregina Erregeordea / Reina Regente, 8
20003 • Donostia/San Sebastián
tel +34 943 483 860 • faxa +34 943 481 969
dferia@donostia.eus • www.dferia.com

